BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIAREN WEBGUNEA ETA WEB APLIKAZIOAK ETA MUGIKORRAK DISEINATZEKO, GARATZEKO, MANTENTZEKO ETA EBOLUZIONATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

AURKIBIDEA

1. **Aurrekariak eta kontratuaren xedea**
2. **Egin beharreko lanak eta jarduerak**
   - **2.1. Webgune publikoa**
     - **2.1.1. Ohar orokorrak**
     - **2.1.2. Oinarrizko ezaugarriak**
     - **2.1.3. Gunearen mapa**
   - **2.2. Mugikorreko aplikazioak**
     - **2.2.1. Aplikazio Ofiziala**
     - **2.2.2. Ekitaldien agenda**
     - **2.2.3. Akreditazioak jasotzea**
     - **2.2.4. Sarbideak**
     - **2.2.5. Bozketak**
   - **2.3. Web aplikazioak (Prozesuen eta edukien kudeatzailea)**
3. **Lanaren exekuzioa, metodologia eta dinamika**
4. **Lantaldea**

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- AURREKARIAK ETA KONTRATUAREN XEDEA

Azken urteotan, Zinemaldiak bere webgunea birdefinitzeko eta garatzeko prozesua gauzatu du, gune publikoaren atalak zabalduz eta edukien kudeatzailea erabat birdiseinatuz. Horretarako, bere datu-base nagusiak txertatu ditu, hainbat web-aplikazio, tresna eta funtzionalitate hobetuen bidez, Zinemaldiaren eraldaketa digitalerako proiektuaren esparruan eta bere sailetarako funtzionamendurako ingurune teknologiko berri bat eraikitzearen esparruan.

Webgunearen eduki guztia, bai alde publikoa, bai back end-aren aplikazioak eta datu-baseak, prozesuen eta edukien kudeatzaile baten bidez kudeatu beharko dira, eta erregistro bidez modu seguruan sartuko da bertara. Online plataforma da, modularra, eskalagarria eta baimen-maila desberdinak dituzten erabiltzaile erregistratuentzako web-irisgarritasuna duena.

Online izanik, plataformak deskokapena eta urrutiko lana errazten ditu, eta informazioaren kudeaketa partekatuak eraginkortasuna areagotzen du eta kontrola eta erabakiak hartzea errazten du, erakundearen barne-kudeaketa optimizatzeko eta kanpoko erabiltzaileentzako izapideak eta zerbitzuak bizkortzeko.

Kontratu honen xedea Donostia Zinemaldiaren Sozietatearen webgunearen eta aplikazioen (web zein mugikorrak) bilakaera ahalbidetuko duten urteko garapen- eta mantentze-zerbitzuak ematea da. Zerbitzu horiek, besteak beste, honako hauek izango lirateke:

- Sozietatearen web-atariari lotutako plataformen plangintza, diseinua, garapena, hobekuntza, kudeaketa eta kontrola gauzatzea, eremu publikoan, mugatuan eta barneko prozesuen eta edukien kudeatzailean, bai eta horien web-aplikazioan eta mugikorrean ere, egun abian diren lanak eta sozietateak bere jardunaren baitan garatzea erabakitzen duen guztiak barnean hartuta.
- Mantentze-lan zuzentzaileak egitea, kontratuaren xedean bildutako aplikazioen edo zerbitzuen erabileran antzemandako gorabehera funtzionalak eta teknikoak konpontzeko eta sozietatearen web-plataformaren jarraipena egiteko, baita, erabilezintasun kasuetan, zerbitzua berrezartzeko ere.
- Prebentziozko mantentze-lanak, sistemetan edo aplikazioetan aldaketak ikertzeko, aztertzeko eta proposatzeko, hala errendimenduan eta zerbitzu berrien ezarpenean hobekuntzak lortzeko.
- Mantentze-lan ebolutiboa sailek eskatutako funtzionalitate berriak estaltzeko, edo kudeaketa eta prozesuak arintzea eta hobetzea ahalbidetuko dutenak aldatzeko, baita aplikazioak etengabe egokitzea eta optimizatzea ere, haien bateragarritasuna eta funtzionamendu zuzena bermatuta, produktuaren prestazio berriei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.
- Sozietatearen webgunearen garapenean, kudeaketan eta elikaduran inplikatuta dauden beste arlo, sail eta hirugarren enpresa batzuekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea.

Esleipendunak egungo web-plataformaren funtzionamenduak inolako eragin negatiborik izango ez duela bermatzeko eta web-eboluzioko proiektuaren emaitza ezin hobea izango dela ziurtatzeko beharrezko jakintzak, esperientzia, metodologiak eta tresnak izango ditu, baita baliabide material eta giza baliabideak ere.

Esleipendunak isilpean gorde beharko du eta gordearazi beharko die kontratua betetzeko baliatzen dituen langileei lana dela-eta Sozietateari buruz iristen zaien informazio guztia, eta ezingo dute informazio hori erabili ez beraientzat ez beste pertsona, entitate edo marka batentzat ere.

2.- EGIN BEHARREKO LANAK ETA JARDUERAK

Jarraian deskribatuko diren webguneak eta aplikazio-sareak Zinemaldiaren bilakaera eta potentzial guztia proiektatzeko gune bat osatzen dute, aldi berean, kanpoko eta barruko erabiltzaileei zerbitzu bikaina eskainiko diena.

Gunea eta bere zerbitzu guztiak Zinemaldiaren bi zerbitzarietan egongo dira (web zerbitzaria eta datu-baseen zerbitzaria). Zerbitzari horiek honako ezaugarri hauek dituzte, eta bi alditan banatuko dira:

1. **Zinemaldian zehar (iraila):**
   - Web zerbitzaria: Ubuntu sistema eragilea (Linux), 16GB Ram memoria, 24vCPU, 500GB SSD diskoa, 4,5TB biltegiratze espazioa.
   - Datu-baseen zerbitzaria: Ubuntu sistema eragilea (Linux), 20GB Ram memoria, 8vCPU, 60GB SSD diskoa, MySQL datu-basearekin.

2. **Urtean zehar:**
   - Web zerbitzaria: Ubuntu sistema eragilea (Linux), 8GB Ram memoria, 8vCPU, 500GB SSD diskoa, 4,5TB biltegiratze espazioa.
   - Datu-baseen zerbitzaria: Ubuntu sistema eragilea (Linux), 18GB Ram memoria, 4vCPU, 60GB SSD diskoa, MySQL datu-basearekin.

Bi zerbitzari horien kostua eta horien mantentze-lanak Zinemaldiaren kontura izango dira, eta ez dira eskaintza honetan sartuko.

Web garapen guztiak php lengoaiarekin sortuak izan beharko dira zerbitzariaren aldetik, javascript lengoaiarekin bezeroaren aldetik eta sql lengoaiarekin datu-baseetarako, eta ez dira hirugarrenen lizentzien mende egongo edo lizentzia horiek izan beharko dira.

Aplikazioak egokitzat jotzen den lengoaian garatu ahal izango dira, baina bateragarriak izan beharko dute egungo datu-baseekin eta web zerbitzuekin.

Zinemaldia garatutako kode osoaren edo kode hori erabiltzeko dagozkien lizentzien jabea izango da, eta sarbidea izango du.

Diseinuak funtzionala, moldagarria (hainbat gailu eta plataforma motatan bistaratzeko) eta optimizatua izan beharko du nabigatzaile nagusietarako (Firefox, Chrome, Safari) eta aplikazio mugikorren marketetarako.

Jarraian kontratuaren xedea osatzen duten lanak deskribatuko ditugu. Esleipenduna lan horiek egitera behartuta dago, nahiz eta ez izan kontrataturiko zerbitzuen ezaugarrien zerrenda zehatza, baizik eta Sozietateak eskatzen duenaren ildo nagusiak.

2.1 Webgune publikoa

2.1.1 Ohar orokorrak

- **Domeinua:** Sozietateak bere domeinua dauka, titulartasun esklusibokoa, www.sansebastianfestival.com, eta hori da bere webgune ofizial korporatiboa.

- **Hizkuntzak:** Informazioa hiru hizkuntzatan argitaratzen da: gaztelania, ingelesa eta euskara. Lehendabiziko orrian agertzen da hizkuntza aukeratzeko menua. Itzulpenen kostua ez da eskaintzan sartu behar.

- **Urteko jarduera:** Sozietatearen webguneak urte osoan zehar du jarduera, eta urteko elikadura eta mantentze-lanak eskatzen ditu, giza baliabideen eta baliabide teknikoen esleipen ezin hobearekin fase guztietan.

- **Edukiak eta lan-erritmoa**: Zinemaldiari dagokio zer, noiz eta nola agertzen den zehaztea eta erabakitzea: eduki guztiak Zinemaldiak ematen ditu, eta berak egiten du argitaratzen den guztiaren kontrola, koordinazioa eta jarraipena. Era berean, urteko garai bakoitzean

jarraitu beharreko erritmoa markatzen du. Gaur egungo edukiak irekita daude etorkizunean webgunean Zinemaldiaren funtzionamenduaren beste alde batzuk ere txertatzeko.

- **Berehalakotasuna**: Zinemaldiarekin zerikusia duten gertakarien azken ordua azaltzeari urte osoan ematen zaio lehentasuna, berriak gertatu bezain laster argitaratzen dira, baita prentsa-oharrak, deialdiak, irudiak eta abar ere. Lehiaketaren nondik norakoaren eta une bakoitzean online agertzen denaren artean harreman estua gordetzen da. Berehalakotasun horrek Zinemaldiaren egunetan balio are bereziagoa dauka.

- **Eboluzioa:** Sozietatearentzat, webgunea irudi-, sustapen-, komunikazio-, komunitate eta profesional-zerbitzurako tresna bat da; beraz, beti egon behar du irekita azterketa eta berrikuntza teknologikorako, eta joera eta garapen berriak aztertu behar ditu alderdi horietako edozeinetan.

- **Garatzailearen presentzia:** webgunea garatzen duenak, kontratu honetako objektu den webgunearen azpialdean, honako hitz hauek ipintzeko eskubidea izango du: «GARATZAILEAREN IZENAk egina».

2.1.2 Oinarrizko ezaugarriak

- **Diseinua**. Funtzionala, erakargarria eta atsegina, erabiltzaile-esperientzia ona emango duena eta egokia eta Zinemaldiaren irudi korporatibo orokorraren araberakoa, edizio bakoitzeko eta urte sasoi bakoitzeko irudi espezifikoarekin batera.

- ***Responsive* edo moldagarria**. Orrialde guztiak gailuaren tamainara eta sistema eragilera egokitu beharko dira, nabigatzaile nagusietan ondo ikusteko.

- **Eduki-mailak**. Domeinuak barnean hartzen ditu bai Zinemaldiaren ekitaldiko erreferentziazko gunea (Edizioa), bai Zinemaldia erakunde gisa edo urte osoko (Z365) ETA Artxiboko edukiei dagokien nabigazio espezifikoa, baita sarbide mugatuko zerbitzuak eta utilitateak (Nire Zinemaldia) eta merkataritza elektronikoko plataformak ere.

- **Nabigazioa**. Urte-sasoira egokitua izango da (Zinemaldiaren aurretik, bitartean eta ondoren): Home, nabigatzailea, aipagarriak, bannerrak, marken presentzia, etab. Nabigazioak erosoa, azkarra, intuitiboa eta malgua izan behar du, egungo eduki guztiak eta etorkizuneko berritasunak jasotzeko. Beharrezkoa izan daiteke atariko atalak sortzea, ezabatzea edo lekuz aldatzea. Nabigatzailearen atalak urtaroaren arabera aldatuko dira, eta, bereziki, irailean aldaketa esanguratsu bat gertatuko da, portadan jaialdiaren atal propio eta adierazgarriak hartzeko. Webgunearen diseinua eta elementu grafikoak edizio bakoitzaren irudira egokitu beharko dira urtero.

- **Orrialde dinamikoak**. Eduki guztiak Zinemaldiak dituen datu-baseekin biltegiratutako informazioaren arabera hornitu eta antolatuko dira.

- **Analisia eta jarraipena**. Estatistika-neurketetarako eta posizionamendurako tresnak barne hartu beharko ditu, hala nola *Google Analytics,* eta datuen babeserako legearekin bateragarriak direnak.

- **Datuen babesa**. Datuak babesteko araudira, pribatutasun-politikara eta cookien politikara egokitzea.

- **Bilatzaileak**. Emaitzak irizpideen arabera eskaintzen dituen bilaketa-inprimakia (orrialdeak, filmak, irudiak eta bideoak). Emaitza horri esker, irizpide horietako bakoitzaren erregistro gehiago ikusi ahal izango dira, edo inprimakian eremu gehiago dituen bilaketa aurreratu batean sartu (izenburua, zuzendaria, urtea eta abar).

- **Banaketa-zerrendak**. Buletin edo newsletterretara harpidetza sistema eta baja ematea integratzea banaketa-zerrenda masiboetara bidaltzeko, pribatutasun-araudiaren arabera.

- **Sare sozialak**. Zinemaldiaren sare sozialetako profilak integratzea, edukien biraltasunerako tresna eta funtzionalitateekin. Sarbide publikoko orrialde guztiek edukiak sare sozialen bidez zabaltzeko elementuak izango dituzte.

- **Edukiak eguneratzea eta mantentzea**. Urte osokoa eta konstantea webguneko orrialde guztietan. Zinemaldiko egunetan berehalakotasunak garrantzi berezia du.

- **Edukien zuhaitza**. Gaur egun www.sansebastianfestival.com webgunean dauden atal guztiak edukien zuhaitzaren egituran sartu behar dira, eta kontuan hartu behar dira bai menu nagusiaren diseinuan, maila hierarkiko desberdinekin, hainbat ataletan errepika daitezkeelarik, bai atalen, sailen edo gaien azalen edo azpi-azalen diseinuan.

- **Sarbidea, erabiltzailearen profilaren arabera**. Edozein atal, orri edo eduki-blokeri bistaratzeko irizpideak jarri ahalko zaizkio, hala nola profil espezifiko batekin erregistratutako erabiltzaile bat izatea (akreditazio-motaren adibidea), urteko data zehatz batean egotea edo erakutsi beharreko edukia izatea.

- **Konexioak eta integrazioa ordainketa-pasabideekin**. Ordainketa-pasabideekin konektatzeko banku-datuak Zinemaldiak ematen ditu, eta erakunde horrek jasotzen ditu ordainketak eta egiten ditu itzulketak.

2.1.3 Gunearen mapa

Jarraian, orriak izan behar dituen atalak eta funtzionaltasunak zehazten dira.

Izartxo (*) batez markatutako atalak erregistratutako erabiltzaileentzat bakarrik daude eskuragarri, haien profilarekin lotutako baimenen arabera.

A. Azala
Guneko edozein ataleko eduki nabarmenduak. Modularra eta moldakorra, itxura aldatzeko eta hainbat eduki nabarmentzeko aukera emango duena. Argazki-galeriak, bideoak, albisteak, sare sozialak, babesleak eta abar.

B. Orrialde guztietako elementu komunak
- **Goiburua.** Zinemaldiaren logotipo-irudi argia izango du, uneko edizio-zenbakiarekin, nabigazio-menuarekin, sare sozialekin, bilatzailearekin, hizkuntza-aldaketarekin eta babesle nagusien logotipoekin.
- **Oina.** Zinemaldiarekin harremanetan jartzeko informazio orokorra, itxiera-menua blokeen edo kategorien arabera ordenatutako webguneko atal batzuekin. Cookie eta pribatutasun-politikari buruzko lege-testuetarako estekak. Babesleen eta erakundeen logotipoak eta ixteko copyright-a.
- **FAQ.** Hainbat gai eta ataletako ohiko galderak moduluka integratzea. Orrialdeko edozein orrialdek edo atalek modulu bat eduki ahal izango du beheko aldean, erlazionatuta dauden ohiko galderekin.

C. Menua

1. EDIZIOA

1.1. Egunez egun. Atal hau Zinemaldiaren egunetan bakarrik ikus daiteke, egun bakoitzari buruzko informazio espezifikoarekin.

1.1.1. Agenda. Egunero egiten diren ekitaldien zerrenda.

- Zinemaldiko hoteletara eta egoitzetara iristea.
- Prentsaurrekoak
- Photocall-a
- Aurkezpenak
- Bestelakoak

1.1.2. Programazioa. Proiekzioen zerrenda. Bilatzaile espezifikoarekin eta egunaren, orduaren, aretoaren eta sailaren arabera antolatuta. Sarreren salmentarako estekak, erabilgarritasunaren arabera. Gogokoen zerrendak sortzeko funtzioa. Edozein aldaketa gertatzen bada, berehala eguneratzea, hori baita publiko orokorrari begira erreferentzia nagusia.

1.1.3. Zinemaldiaren Egunkaria. Edizioko egunkarien zerrenda, pdf bertsioaren deskarga, berrien aurkibidea zenbakika eta azken orrialdeak web formatuan argitaratutako artikulu bakoitzarekin. Bi bertsioak egunero argitaratzea (web eta pdf).

1.1.4. Egun bakoitzeko irudiak. Egunez egun antolatutako argazki-galeriak, Zinemaldiko argazkilari ofizialek egindako irudien aukeraketa batekin. 200 eta 300 irudi artean egunero. Zinemaldiaren eguneroko argazki-bilduma etengabe eguneratzea. Argazki horiek ahalik eta azkarren agertu beharko dira, berehalakotasun-sentsazioa sortzeko.

1.1.5. Zuzenean. Eguneroko zuzeneko emanaldien parrilla. Prentsaurrekoak, aurkezpenak, zeremoniak, etab. Aldibereko itzulpena edo audio-pista bat baino gehiago duten emanaldiak aldi berean ematen dira, eta bideo bererako bost audio-seinale ezberdin ere izan daitezke. Aldi berean ekitaldi bat baino gehiago batera edo gainjar daitezke. Streaming zerbitzaria Zinemaldiaren kontura.

1.2. Zinemaldia

1.2.1. Harremanetarako datuak. Zinemaldiarekin harremanetan jartzeko informazio orokorra.

1.2.2. Antolaketa. Zinemaldiaren antolaketa-egitura, osatzen duten pertsonen zerrendak eta fitxak, nazioarteko ordezkari-sarea eta hornitzaileak biltzen dituen orrialde-taldea.

1.2.3. Filmen eta proiektuen izen-ematea. Sailen erregelamenduak eta izen-emate inprimakietara sarbideak biltzen dituen orrialde-taldea* (6.3 puntua).

1.2.4. Akreditazioak. Akreditazio motei buruzko informazioa eta akreditazio-inprimakietarako esteka* (6.4 puntua).

1.2.5. Sarrerak. Prezioei, sarrerak erosteko moduei eta sarrerak saltzeko plataformetarako estekei buruzko informazio-orria (kontratuaren xedetik kanpo).

1.2.6. Logotipoa. Sailen eta sarien araberako logotipoak deskargatzeko fitxategien zerrenda eta estekak, baita horiek erabiltzeko eskuliburua ere. Logotipoak hainbat formatutan egongo dira eskuragarri.

1.2.7. Babesletzak. *Branding*-ari eta Zinemaldiko babesle eta kolaboratzaileen presentziari buruzko informazio-orrien multzoa, logotipo, fitxa eta deskribapenekin.

1.2.8. Kontratatzailearen profila. Euskadiko kontratazio publikoaren plataformarekin integratzea. https://www.contratacion.euskadi.eus

1.2.9. Curriculumen bidalketa. Cv-a eta datuak bidaltzeko inprimakia, Zinemaldiko hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eta lan-poltsan sartzeko.

1.2.10. Gardentasun ataria. Erakundearen informazio korporatiboa eta ekonomikoa biltzen duen orrialdea, gardentasun-legearen betebeharrekin eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekin bat etorriz.
- Informazio korporatiboa
- Informazio ekonomikoa
- Informazio publikoa

1.3. Sailak. Zinemaldia osatzen duten sailen zerrenda, horien deskribapena eta sail bakoitzaren berariazko babesleen zerrenda. Sail bakoitzak edizioko filmen zerrenda eta azken fitxak izango ditu. Film bakoitzaren azken fitxetan sinopsia, zuzendariaren edo zuzendarien biografia, fitxa teknikoa, proiekzioen zerrenda, sariak, irudiak, bideoak eta audioak ageri dira, bai promoziozkoak, bai Zinemalditik igarotzekoak.

1.4. Sariak. Sail bakoitzean Zinemaldiak ematen dituen sarien orrialdeen zerrenda, araudiak, epaimahaikideak eta horien fitxa biografikoak. Orrialde bakoitzak testua, argazkiak, bideoak, estekak, dokumentuak eta webguneko beste atal batzuekiko harremanak izan ditzake.

Ohorezko sariak ere sartzen dira, non Donostia Sariei eskainitako atala nabarmentzen den, saridun guztien zerrenda eta azken fitxekin. Orrialde bakoitzak testua, argazkiak, bideoak, estekak, dokumentuak eta webguneko beste atal batzuekiko harremanak izan ditzake.

1.5. Prentsa. Azpiazal propioa duen atala, eduki esanguratsuenak, gauden dataren arabera, nabarmentzeko aukera ematen duena.

1.5.1. Berriak eta bestelako informazioa. Zinemaldiak sortutako sarreren eta azken orrien aurkibideak, gaika edo kategoriaka multzokatuta. Albiste bakoitzak testua, argazkiak, bideoak, estekak, dokumentuak eta webguneko beste atal batzuekiko harremanak izan ditzake.

1.5.2. Sailaren informazio-orriak eta ematen dituen zerbitzuak. Eduki horietako batzuk erregistratutako erabiltzailearen eta sisteman dituen baimenen arabera erakutsiko dira, modu mugatuan eta pertsonalizatuan informatu ahal izateko. Orri bakoitzak testua, argazkiak, bideoak, estekak, dokumentuak eta webguneko beste atal batzuekiko harremanak izan ditzake.

1.5.3. Deskargen eremua. Edizio bakoitzeko prentsa-oharrekin eta filmekin lotutako irudi-, bideo- eta dokumentu-galeriak. Galeria horiek gaika eta kategoriaka antolatuko dira, artxibo bakoitzari buruzko informazio zehatzarekin.

1.5.4. Prentsa-agenteak. Zinemaldira bertaratzen diren filmen prentsa-agenteen eta haien kontaktuen zerrenda.

1.5.5. Elkarrizketak eskatzea. * Prentsa akreditatuen eta filmetako ekipoen arteko hitzorduak eskatzeko inprimakia. Eduki bera 6.5.3 atalean.

1.5.6. Prentsa-paseak. Prentsak eta akreditatuek sarbide zuzena duten paseen zerrenda. Bilatzaile espezifikoarekin eta egunaren, orduaren, aretoaren eta sailaren arabera antolatuta.

1.5.7. Prentsaurrekoak eta photocall-a. Zinemaldiko prentsaurrekoen eta photocall-en planning-a hainbat espaziotan.

1.5.8. Kutxatila birtuala. * Zinemaldiaren eta edizio bakoitzean parte hartzen duten filmen eta sailen sustapen-materialen aurkibidea eta gordailua deskargatzea, kategoriaka antolatuta: artxibo motak, irudiak, audioak, bideoak, dokumentuak eta bestelakoak. Eduki bera 6.5.2 atalean.

1.6. Industria. Azpiazal propioa duen atala, eduki esanguratsuenak gauden dataren arabera nabarmentzeko aukera ematen duena.

1.6.1. Informazio orokorra. Industria sailari eta bere jarduerei buruzko azalpen-orria edo orriak.

1.6.2. Eraikitzen ari diren filmak eta garatzen ari diren proiektuak. Industria-esparruaren barruan eraikitzen ari diren filmetarako eta garatzen ari diren proiektuetarako antolatzen diren sailak erakusten dituzten atalak. Atal horietako bakoitzak honako hauek izango ditu: informazio-orriak, azken fitxetarako estekak dituzten tituluen zerrendak, babesleak, sariak, izena emateko oinarriak eta inprimakiak* eta akreditatuen eta proiektuen arduradunen arteko hitzorduak online erreserbatzeko sistemak*.

1.6.3. Agenda profesionala. Sailak Zinemaldian egindako jardueren zerrenda duen kronograma.

1.6.4. NewsFlash. Zinemaldian parte hartzen duten filmei buruzko hedabideen erreferentziak biltzen dituen zerrenda, egunaren eta sailaren arabera antolatuta.

1.6.5. Online Industria*. 6.6 puntuan deskribatutako ataletarako sarbidea, industriako akreditatuentzat bakarrik.

1.7. Artxiboa. Atal hau 2.7 puntuan deskribatzen denaren antzekoa da. Menu honen eduki historikoa. 2022an 70. edizioa amaitu ondoren, puntu hau guztia atal berri baten parte izango da menuaren lehen mailan, eta bertan garatuko den edozein artxibo-eduki bilduko da.

1.8. TV. Bideo-edukiak, bai ekoizpen propiokoak, bai ekoiztetxeek emandakoak (trailerrak), kanalen, filmen eta erreprodukzio-zerrenden arabera antolatuta. Bideo nabarmenduak eta erlazionatuak. Bilatzaile propioa. Bideo bakoitzak dagokion deskribapena, iraupena eta zer hizkuntzatan dagoen jasotzen du. Zinemaldiak Youtubeko kanal bat du eta zerbitzari gisa erabiltzen du webguneko playerrean jartzen dituen eta gainerako edukiekin erlazioan diren bideoak ostatatzeko. Zinemaldiaren egunetan garrantzi berezia hartzen du une horretan emititzen ari den zuzeneko seinaleak eta eguneko zuzeneko emisioen parrillak.

1.9. Donostia. Hiriaren planoa, interesguneak, egoitzak, zinemak, hotelak eta abar kokatuz, eta lotutako informazio xehetasunekin blokeak. Atal honetan informazio turistikoa eta hiriari buruzkoa biltzen duten kanpoko beste zerbitzu batzuen bannerrak txertatuko dira.

2. Z365

Zinemaldiaren urte osoko jarduerari buruzko edukiak, azal eta nabigazio espezifikoarekin, non albisteen berri ematen den, eta hainbat ataletan jardueren urteko agendaren berri ematen da, baita programen eta arloen edukiaren eta garapenaren berri ere. Atal guztiak erlazionatutako orrialdeak biltzen dituen portada batez osatuta daude. Orrialde bakoitzak testua, argazkiak, bideoak, estekak, dokumentuak, artxiboen gordailuak eta webgunearen beste atal batzuekiko harremanak izan ditzake.

2.1. Albisteak. Zinemaldiaren urte osoko jarduerari buruzko albisteen aurkibidea.

2.2. Agenda. Jardueren urteko egutegia, bilatzailearekin eta kategoria eta etiketen arabera iragazita.

2.3. Zinemaldia+Plus. Lehiaketak hilero Tabakalerako zinema pantaila publiko partekatuaren programazioan parte hartzen duen jarduerekin zerikusia duen orrialde-multzoa.

2.4. Pentsamendua eta eztabaida. Zinemaldietako jarduerekin eta kulturarekin lotutako txostenekin eta eztabaiden emaitzekin lotutako orrialde-multzoa.

2.5. Ikerketa eta argitalpenak. Z365 osatzen duten arloek aktibatutako ikerketen emaitza diren argitalpen akademikoak eta artikuluak.

2.6. EQZE. Lehiaketak Elías Querejeta Zine Eskolarekin batera egiten dituen jarduera eta proiektuekin lotutako orrialdeen multzoa.

2.7. Zinemaldia 70. Etengabe hazten ari den ikerketa-proiektua, Zinemaldiaren artxibo historikoa erakusteko. 2022an 70. edizioa amaitu ondoren, puntu hau guztia atal berri baten parte izango da menuaren lehen mailan, eta bertan garatuko den edozein artxibo-eduki bilduko da.

2.7.1. Programa publikoa. Programa publikoekin lotutako orrialde-multzoa, ikerketak, hala nola hitzaldiak, proiekzioak, erakusketak edo ikastaroak.

2.7.2. Bilduma digitalak.

- **Zinemaldiaren Egunkariak.** Zinemaldiak argitaratutako egunkari guztien gordailua, html eta pdf formatuetan.
- **Kartelak.** Edizio eta sailka antolatutako Zinemaldiko kartelen gordailua.
- **Argazkiak.** Edizio, galeria, gai, data eta etiketen arabera antolatutako Zinemaldiko irudi historikoen gordailua.
- **Bideoak.** Edizio, galeria, gai, data eta etiketen arabera antolatutako Zinemaldiko bideo historikoen gordailua.

2.7.3. Edizioen historikoa. Zinemaldiaren edizio bakoitzean sortutako edukiaren gordailua, edizio bakoitzean gaika antolatuta.

- **Sariak.** Edizio bakoitzeko sarien zerrenda, erlazionatutako edukietarako estekekin.
- **Sailak eta filmak.** Edizioko sailen zerrenda, parte hartu zuten film bakoitzaren fitxetarako estekarekin eta horiekin lotutako eduki guztiekin.
- **Epaimahaiak.** Epaimahaietan parte hartu duten pertsonen zerrenda, bakoitzaren azken fitxekin. Fitxa horiek informazioa dute, hala nola biografiak, irudiak, bideoak eta estekak.
- **Kartelak.** Edizioan erabilitako kartelen eta material grafikoen zerrenda.
- **Egunkariak.** Egunkarien zerrenda pdf eta html formatuetan.
- **Irudiak.** Edizioan zehar egindako irudien gordailua, galeria, gai, data, etiketa, sail eta filmen arabera antolatuta.
- **Bideoak.** Edizioan zehar egindako bideoen gordailua, galeria, gai, data, etiketa, sail eta filmen arabera antolatuta.

2.8. Ikusmira Berriak. Atal honekin eta bere historiarekin lotutako informazioa biltzen duen orrialde-multzoa.

2.8.1. Informazio orokorra. Atalaren informazio orokorrari buruzko orria, izena emateko inprimakirako estekarekin, deialdia irekita dagoenean.

2.8.2. Araudiak. Proiektuak aurkezteko araudiak eta epeak.

2.8.3. Sariak. Atalak edizio bakoitzean izan ditzakeen sarien zerrenda. Sarien historikoaren zerrenda, proiektuen azken fitxetarako estekekin.

2.8.4. Hautatutako proiektuak. Hautatutako proiektuen zerrenda, azken fitxetarako estekekin.

2.8.5. Zinemagileak. Sailean parte hartzeko hautatu diren pertsonen zerrenda historikoa, proiektuetarako estekekin.

2.9. Nest. Atal honekin eta bere historiarekin lotutako orrialdeen multzoa.

2.9.1. Informazio orokorra. Atalaren informazio orokorrari buruzko orria, izena emateko inprimakirako estekarekin, deialdia irekita dagoenean.

2.9.2. Araudiak. Araudiak eta eskolen eta film laburren aurkezteko epeak.

2.9.3. Sariak. Atalak edizio bakoitzean izan ditzakeen sarien zerrenda. Sarien historikoa eta film laburren azken fitxetarako estekak.

2.9.4. Hautatutako film laburrak. Hautatutako film laburren zerrenda, azken fitxetarako estekekin.

2.9.5. Zinemagileak. Sailean parte hartzeko hautatuak izan diren pertsonen zerrenda historikoa, film laburretarako estekekin.

3. DEIALDIAK

Deialdi desberdinetarako estekak biltzen dituen gunea, horrela bakoitzaren ataketan banatuta dagoen informazioa bilduz.

3.1. Aribidean. Deialdi irekien zerrenda.

3.2. Filmak. Sail bakoitzaren araudietarako eta atal honetako 6.3.1 eta 6.3.2 puntuetan zehaztutako inskripzio-inprimakietarako estekak.

3.3. Works in Progress. Garatzen ari diren filmekin industriako sail bakoitzaren araudietarako eta atal honetako 6.3.1 puntuan zehaztutako inskripzio-inprimakietarako estekak.

3.4. Proiektuak. Garatzen ari diren proiektuekin industriako sail bakoitzaren araudietarako eta atal honetako 6.3.1 puntuan zehaztutako inskripzio-inprimakietarako estekak.

3.5. Egonaldiak. Egonaldi ezberdinen araudietarako eta atal honetako 6.3.1 puntuan zehaztutako inskripzio-inprimakietarako estekak.

3.6. Gazteriaren Epaimahaia. Gazteriaren Epaimahai gisa parte hartzeko araudiaren esteka eta atal honetako 6.3.3. puntuan zehaztutako inskripzio-inprimakia.

4. ALBISTEAK

Albisteak webgunearen beste edozein atalekin erlazionatuta egon daitekeen orrialde mota bat dira. Azpiazal moduko puntu honetan denak batera agertzen dira. Edozein albistek testua, irudiak, audioak, bideoak eta webguneko beste atal batzuetarako nahiz Interneteko beste orrialde batzuetarako estekak izan ditzake.

4.1. Edizioko albiste orokorrak. Kategoria honetako albisteen aurkibidea.

4.2. Bestelako informazioak. Zinemaldiarekin zerikusia duten albisteak biltzen dituzten bestelako informazioak kategoriako albisteen aurkibidea.

4.3. Z365 albisteak. Zinemaldiaren urte osoko jarduerari buruzko albisteen aurkibidea.

4.4. Deialdiak. Deialdien epeei, filmen izen-emateei, akreditazioei, egoitzei eta parte hartzeko beste sistema batzuei buruzko albisteak, besteak beste gazteriaren epaimahaian nola parte hartu.

4.5. Buletinetarako harpidetza. Alta eta baja emateko sistema duen inprimakia, non erabiltzaileak berak edozein unetan alda dezakeen bere informazioa, adierazten duen posta elektronikoan albisteak jasotzeko.

5. DENDA

5.1. Argitalpenen denda. Zinemaldiko argitalpenak saltzeko webgunean integratutako merkataritza elektronikoaren atala. Nire Zinemaldia (6.2) ataleko erabiltzaileen erregistroarekin integratutako zerbitzua. Erakusleiho moduko portada propioa du, produktu nabarmenekin, kategoriekin eta salgai dagoen artikulu bakoitzaren azken fitxekin, informazio zehatzarekin. Barne hartzen ditu sustapenengatiko deskontuen kalkuluak edo erabiltzaileen ezaugarriak, bidalketa-gastuen eta zergen kalkulua eta kobrantzak egiteko ordainketa-pasabidearekiko lotura.

5.2. *Merchandising-a*. Zinemaldiko *merchandising*-aren merkataritza elektronikoko gunerako esteka (kontratuaren xedetik kanpo).

5.3. Sarreren salmenta. Sarreren salmentari buruzko informazioa eta sarrerak saltzeko plataformarako esteka (kontratuaren xedetik kanpo).

6. NIRE ZINEMALDIA

Gune honek erregistratutako pertsona nor den jakitea eskatzen duten webgunearen zati guztiak biltzen ditu, horrela, informazio pertsonalizatua eta bere profilari eta Zinemaldiarekin duen harremanari egokitua eskaintzeko.

6.1. Sarbidea

6.1.1. Sarbide-inprimakia erabiltzailearekin eta gakoarekin.

6.1.2. Gakoa berreskuratzeko inprimakia.

6.1.3. Nire sarbide-datuak. *
Atal honetan, erabiltzaileak bere informazio pertsonala kontsultatu eta aldatu ahal izango du.

6.1.4. Nire fakturak. *
Erabiltzaileak Zinemaldiarekin azken bost urteetan izan dituen transakzio ekonomikoen ordainagirien eta fakturen zerrenda, Zinemaldiaren datu-baseetan jasota daudenak.

6.2. Erregistroa.

Erabiltzaile berria erregistratzeko inprimakia, hainbat datu bilduz, hala nola izena, abizenak, emaila, hizkuntza edo eskatzen diren beste espezifikoago batzuk.

6.3. Inskripzioak

6.3.1. Filmak eta proiektuak inskribatzea. *

Zinemaldiko sailetan parte har dezaketen filmak inskribatzeko inprimakia. Filma zein sailetan inskribatzen den eta zein fasetan gauden (inskripzioa edo hautaketa) kontuan hartuta, inprimakiak eremu desberdinak izango ditu informazioa jasotzeko. Eremu horien artean, datu tekniko eta artistiko guztiak agertuko dira, bai eta inskripziorako beharrezkoak diren artxibo grafikoak edo dokumentuak erantsi ahal izatea ere. Inprimaki honek inskripzioa kobratzeko ordainketa-pasabide baterako esteka izango du.

6.3.2. Zinema-eskolak eta film laburrak inskribatzea. *
NEST atalean parte hartu nahi duten zinema-eskolak inskribatzeko inprimakia. Inprimaki honek bi zati izango ditu, lehenengoan eskolaren datuei alta emango zaie, eta bigarren fasean, Zinemaldiak datuak onartu ondoren, film laburren inskripzio-inprimakia eskuratu ahal izango dute, 6.3.1 atalean aipatutako filmen antzekoa, eskola bakoitzeko aldi kopuru mugatu bat.

6.3.3. Gazteriaren Epaimahaiko kide izateko izen-ematea. *
Gazteriaren Epaimahaian parte hartu nahi duten 18 eta 25 urte bitarteko pertsonen eskaerak biltzeko inprimakia. Inprimaki honek hainbat eremu pertsonal eskatuko ditu, bai eta inskripziorako beharrezkoak diren fitxategiak edo identifikazio-dokumentuak igotzea ere.

6.4. Akreditazioak
Akreditazio motei, baldintzei, tarifei eta horiek eskatzeko epeei buruzko informazioa.

6.4.1. Akreditazio-inprimakia. * Hainbat eremu izango ditu, akreditazio-motaren arabera. Datu pertsonalak, lanbideak, eta egonaldiari, ostatuari eta garraioari buruzkoak. Irudiak igotzea eskatuko da, hala nola akreditazioan agertuko den argazkia, eta lan egiten den enpresa, erakunde edo komunikabidearen artxiboak edo identifikazio-dokumentuak edo erreferentziazko dokumentuak. Inprimaki honek inskripzioa kobratzeko ordainketa-pasabide baterako esteka izango du.

6.4.2. Bere akreditazioari buruzko informazioa. * Datu interesgarriak, profilaren eta akreditazio-motaren arabera akreditatutako pertsonarentzako araudi espezifikoak.

6.5. Zerbitzuak

6.5.1. Akreditatuen eta parte hartzaileen zerrenda. *

6.5.2. Kutxatila birtuala. * Zinemaldiaren eta edizio bakoitzean parte hartzen duten filmen eta sailen sustapen-materialen aurkibidea eta gordailua, kategoriaka antolatuta: artxibo-motak, irudiak, audioak, bideoak, dokumentuak eta bestelakoak. Eduki bera 1.5.8 puntuan.

6.5.3. Elkarrizketa eskaerak. * Prentsa akreditatuen eta filmetako ekipoen arteko hitzorduak eskatzeko inprimakia.

6.6. Online Industria. *
Online industriako eduki eta jarduerak biltzen dituen menu espezifikoa, bai hemendik bai 1.6 puntutik sartuko dena.

6.6.1. Agenda Profesionala. Industriako jardueren zerrenda, deskribapen zehatzekin eta informazio gehiagorako estekekin.

6.6.2. Bertaratuen zerrenda. Industrian akreditatutako pertsonen direktorioa, beren lanbide datuekin.

6.6.3. Filmetako kontaktuak. Edizioan parte hartzen duten filmen ekoizle, banatzaile, salmenta-agente eta kontaktuen zerrenda.

6.6.4. Bideoteka. Horretarako prestatutako plataforman online ikusteko eskuragarri dauden filmen zerrenda eta fitxa xehatuak. (Ikuskapen plataforma kontratuaren xedetik kanpo).

6.6.5. "One to one" hitzordu-kudeatzailea. Industrian akreditatutako pertsonek edizioan zehar aurkezten diren garapen bidean dauden proiektuetarako taldeekin hitzorduak erreserbatzeko sistema.

2.2 Mugikorreko aplikazioak

2.2.1 App ofiziala

Zinemaldiaren aplikazio ofiziala AppStore eta Google Play webguneetan dago eskuragarri, Zinemaldiaren garatzaile kontuarekin.

Hiru hizkuntzatan garatua, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, eduki guztien online eta offline funtzionamenduarekin, webgunearen datu-base berberetan oinarritutako informazioa erakusten du.

1. **Azala.** Aplikazioaren barruan eskaintzen diren hainbat eduki nabarmentzen dituen espazio modularra.

2. **Albisteak.** Zerrenda eta azken orriak, webguneko Albisteak ataleko edukiarekin.

3. **Filmak.** Zinemaldia osatzen duten sailen zerrenda, horien deskribapena eta sail bakoitzaren berariazko babesleen zerrenda. Sail bakoitzak edizioko filmen zerrenda eta azken fitxak ditu. Film bakoitzaren azken fitxetan sinopsiak, zuzendariaren edo zuzendarien biografia, fitxa teknikoa, proiekzioen zerrenda, sariak, irudiak, bideoak eta audioak ageri dira, bai promoziozkoak, bai Zinemaldian igarotakoak. Filmen bilatzaile espezifiko bat du.

4. **Programa.** Proiekzioen zerrenda. Bilatzaile espezifikoarekin eta egunaren, orduaren, aretoaren eta sailaren arabera antolatuta. Sarreren salmentarako estekak, erabilgarritasunaren arabera. Gogokoen zerrenda sortzeko eta proiekzio gogokoenen plangintza egiteko funtzioa.

5. **Irudiak.** Galerien arabera antolatutako irudien fluxua. Irudi bakoitzak datu gehigarriak ditu, hala nola argazki-oina, data edo filmak eta horiekin lotutako jarduerak.

6. **Bideoak.** Gaikako kanalen bidez antolatutako bideo-galeriak. Bideo bakoitzak datu gehigarriak ditu, hala nola argazki-oina, data, iraupena, hizkuntza edo filmak eta horiekin lotutako jarduerak.

7. **Kokalekuak.** Hiriko eta Zinemaldiko interesgune nagusien geolokalizazioa eta fitxa deskriptiboak dituen mapa.

8. **Zinemaldiko telebista.** Atal honetan, edizioko zuzeneko emanaldien seinalea eta eguneko emanaldien programazioa agertzen dira.

9. **Euskadi ezagutu.** Turismoa sustatzeko atala, informazioa eta kanpoko webguneetarako estekak dituena.

10. **Kontaktua.** Zinemaldiarekin harremanetan jartzeko informazio orokorra.

11. **Hizkuntza aldatzea.** Hizkuntza aukeratzeko eta aldatzeko aukerak.

2.2.2 Agenda app-a

Donostia Zinemaldiko ekitaldien agenda, edizioan akreditatutako kazetari grafikoentzat soilik.

AppStore eta Google Play webguneetan dago eskuragarri, Zinemaldiaren garatzaile kontuarekin.

Hiru hizkuntzatan garatuta dago, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, eta webgunearen datu-base berberetatik abiatuta erakusten du informazioa.

Webguneko erabiltzaile eta gako berarekin sartzen da. Erabiltzaileak urteko akreditazioan dagozkion baimenak baditu, edukira sartu ahal izango da.

Kazetari grafikoentzat programatutako ekitaldi eta jarduera guztien zerrenda zehatza, egun eta motaren arabera antolatuta (photocallak, prentsaurrekoak, iritsierak, alfonbra gorriak, galak, aurkezpenak…).

Ekitaldi bakoitzaren xehetasunetan sartzean, tokiaz, egunaz eta orduaz gain, parte-hartzaileen izenak eta erreferentziazko argazki bat aurkituko dira, errazago identifikatzeko. Gainera, interesatzen diren kategoriak bakarrik iragazteko, gogokoak markatzeko eta, azken orduko aldaketak gertatuz gero, jakinarazpenak jasotzeko aukera izango du.

2.2.3 Akreditazioak jasotzeko app-a

Barne-erabilerako aplikazioa, market-etan eskuragarri egongo ez dena.

Bere funtzio nagusia akreditazioak jasotzean baliozkotzea da. Kudeaketa-sistemarekin eta akreditatuen datu-baseekin etengabe konektatuta, akreditazioa jasotzen duen pertsonaren datuak erakutsi beharko ditu pantailan, eta, horrela, modu digitalean sinatu beharko du akreditazioa jasotzea eta honek dakartzan baimenak eta betebeharrak onartzea.

2.2.4 Sarbideko app-a

Barne-erabilerako aplikazioa, market-etan eskuragarri egongo ez dena.

Bere funtzio nagusia sarbide-kontrola egitea da, akreditazioetan agertzen den qr kodea irakurriz, eta, horrela, espazio eta jarduera jakin batzuetarako sarbide-kontrola izatea. Ez da sartzen sarrera jasotzen den zinema-saioen kontrola, sarrera-kontrola sarreren salmenta kudeatzen duen enpresak egiten baitu.

Zinemaldiko datu-baseen sistema orokorrera konektatuta egon beharko du, bai akreditatuen zerrendara bai ekitaldien agendara, bildutako informazioa igo eta irakurritako kodearen egiazkotasuna eta baimenak baliozkotu ahal izateko.

2.2.5 Bozketen app-a

Barne-erabilerako aplikazioa, market-etan eskuragarri egongo ez dena.

Aplikazio honek zinema-aretoen irteeran kokatzen diren tabletetan funtzionatu behar du, eta filma ikusi duen publikoaren bozketa jaso behar du, ondoren emaitza horiek modu argian eta Zinemaldiko datu-baseekin konektatuta erakusteko.

Era berean, botoak segmentatzeko aukera eman behar du, baliozkotze-motaren batekin, hala nola sarreraren edo akreditazioaren kodea irakurtzea, gutxienez bi bozketa-mota bereizitako emaitzak izan ahal izateko: Publikoaren Saria eta Gazteriaren Saria.

2.3 Web aplikazioak (Prozesuen eta edukien kudeatzailea)

Webgunearen eta haren datu-baseen eduki guztia edukien kudeatzaile baten bidez kudeatu beharko da, eta erregistro bidez modu seguruan sartuko da kudeatzaile horretara.

Zinemaldiko langileei mugatutako lan-eremua da. Hemen, arlo edo sail bakoitzerako elkarri lotutako datu-base, aplikazio, modulu eta tresna espezifikoak dituzte, urte osoan zehar beren lana egiteko, eta informazioa denbora errealean partekatzen dute web-egituraren beraren bidez, bai web publikoko sarbide mugatuko eremuaren bidez (front end) jasotakoa, bai haiek kudeatzaileari gehitutako eduki espezifikoaren bidez (back end). Online eta gailu anitzeko tresna denez, tresnak urrutiko lana eta deslokalizazioa errazten ditu, eta informazioaren kudeaketa partekatuak eraginkortasuna areagotzen du eta kontrola eta erabakiak hartzea errazten ditu.

2.3.1 Prozesuen eta edukien kudeatzailearen deskribapena eta atalak

Atal hauetako edozeinek prest egon behar du informazioa tratatzeko, bai oraingo edizioari buruzkoa, bai aurreko edizioetatik berreskuratzen den edukiari buruzkoa, eta historikoa elikatzen duena.

Kudeatzailean honako datu-base hauek integratzen dira, beren aplikazio espezifikoekin:

1. **Erabiltzaileak.** Erabiltzaileak sortu eta kudeatzea, mailak, profilak eta baimenak esleitzea, bai edukien kudeatzaile horretan sartzen diren erabiltzaileenak (300 inguru), bai alde publikoan erregistratutakoenak (38.000 baino gehiago gaur egun).

2. **Kontaktuen agenda.** Pertsonen eta enpresen direktorioa (72.000 inguru). Harremanetarako datuak (postazkoak, telefono bidezkoak, elektronikoak, sare sozialak, argazkigintzakoak, etab.), bai eta horien arteko erlazioa eta garrantzia edo ordena ere. Etiketen, taldeen eta erlazionatutako enpresen araberako taldekatze-sistemak. Pertsonen zerrenda enpresaren arabera, eta eduki-administratzailearen gainerako atalekin (akreditazioak, filmak, hotelak, lekualdatzeak, elkarrizketak, industria, erabiltzaileak, mailinga).

   Pribatutasunari eta datuen babesari buruzko araudietara egokitzea, datu pertsonalen tratamenduari eta prentsa-oharrak eta komunikazioak bidaltzeko baimena lortzeari eta biltegiratzeari dagokionez.

3. **Mailinga.** Kudeatzailearen beste atal batzuetako (agenda, akreditatuak, hotelak, lekualdatzeak, filmak) bilaketei lotutako mezu elektronikoak masiboki bidaltzeko sistema.

   Erabiltzaile bakoitza berak edo bere sailak sortutako bidalketetara edo esleitzen zaizkionetara baino ez da sartuko.

   Bidalketaren kontrola eta jarduera-txostena. 1.000.000 email-bidalketa inguru urtean.

4. **Akreditazioak/Gonbidapenak.** Zinemaldiaren edizio bakoitzera joaten diren edo joango diren pertsonen zerrenda. Urteko 5000 fitxa inguru. Atal honetatik funtzio hauek betetzen dira:
   - Gonbidapenak egitea. Irizpideak definituz, hala nola gonbidapen-gauak, ostatua, lekualdaketak, gonbidatzen duen Zinemaldiko saila edo lotutako filmak.
   - Gonbidapenak bidaltzea. Gonbidapenen bidalketa elektronikoa, zerikusia duten pertsonak taldekatuta edo banaka.
   - Pertsonako kudeaketa. Akreditatu bakoitzeko fitxa indibiduala, gonbidapena jasotzen duen inprimakian betetako informazio guztiarekin (“Nire Zinemaldia”, webgunearen zati publikoan), eta Zinemaldiko sailen datu espezifiko gehiagorekin osatzen dena.
     - Egonaldia eta hotela.
     - Lekualdaketak.
     - Lotutako enpresa eta filmak.
     - Gonbidatuen harreman publikoetako jarduerak.

- Akreditazioaren egoerak (egiteke, bidalita, onartuta, inprimatuta, entregatuta, etab.).
- Fakturazioa. Akreditazioaren fakturaren datuak, lotutako hainbat pertsonen arabera taldekatzeko aukerarekin. Datuen balidazioa eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren zerga-sistemaren TicketBai sistemaren etorkizuneko integrazioarekiko bateragarritasuna.
- Oharrak, sailka.
- Akreditazioak taldekatzeko etiketa-sistema.
- Erlazionatutako korrespondentzia biltegiratzea.
- Prentsako akreditatuek bidalitako lanen zerrenda.
- Akreditatuaren aretoetako sarrerak eta sarbideak akreditatuentzako sarrera- eta erreserba- sistemaren Api bidez integratzea.
- Espazio edo ekitaldietarako sarbideen erregistroa.

5. **Industria.** Industriako akreditatuei buruzko informazioa kudeatzeko gunea:
   - Bertaratuak. Sail honetako akreditatuen zerrenda, eremu mugatuaren barruan webguneko alde publikoaren argitalpenak eta zerrendak egiteko garatu beharreko informazio gehiagorekin. Taldekatzeen sistema espezifikoa, enpresaren, herrialdearen edo jardueraren arabera.
   - Kontaktuak. Edizioan parte hartzen duten filmekin zerikusia duten pertsonen zerrenda eta haien harremanetarako datuak, eremu mugatuaren barruan webguneko alde publikoaren argitalpenak eta zerrendak egiteko. Taldekatzeen sistema espezifikoa, enpresaren, herrialdearen edo jardueraren arabera.
   - Hitzorduen plangintza. Lantaldeen hitzorduak kudeatzeko agenda. Koprodukzio Foroan eta Ikusmira Berriak-en parte hartzen duten proiektu bakoitzeko arduradunen eta interesa izan dezaketen koproduktoreen arteko bilera-tarteak eta -denbora esleitzea. Zerrendak egitea, proiektuaren, orduaren edo espazioaren arabera ordenatuta. Hitzorduak urrutitik egiteko funtzionaltasunak txertatzea.
   - New Flash. Zinemaldian parte hartzen duten filmei buruz argitaratutako titularren zerrendarekin mailing masiboen edukia egiteko sistema.
   - Jarduera-agenda. Industriaren jardueren plangintza, egunen, orduen eta espazioen arabera. Informazio horrekin mailing masiboa egitea.

6. **Filmak.** Zinemaldiko Hautespen Batzordeak hautaketa egiteko jarraipena egiten dien filmen datu-basea. Urtean 8000 film inguru.
   - Kontaktua. Filmekin zerikusia duten enpresen eta pertsonen harremanetarako fitxa zehatzak. Ekoizpena, zuzendaritza, salmentak, banaketa, etab.
   - Jarraipen-txostenak. Zinemaldiko Hautespen Batzordeko kideek egindakoak. Batzordeko kiden arteko barne-komunikazio sarea, iritziak trukatzeko.
   - Korrespondentzia. Zinemaldiaren eta filmaren arteko korreskondentziaren zerrenda.
   - Materialak. Filmarekin lotutako argazki-artxiboak, bideoak, audioak eta dokumentuak igotzea.
   - Fitxa tekniko zehatzak, karguak eta pertsonak, genero-identifikazioarekin.
   - Fitxa artistiko zehatzak, karguak eta pertsonak, genero-identifikazioarekin.
   - Hainbat argitalpenetarako sinopsia (motza eta luzea).
   - Ikuspen-kopiak. Zinemaldira iristen diren kopien zerrenda eta haien ezaugarri teknikoak.
   - Film bakoitzeko akreditatuen zerrenda.
   - Alde publikoko informazio-inprimakiak betetzeko sarbidea duten erabiltzaileen zerrenda. Baimen-mailak esleitzea.
   - Kutxatila birtuala. Erabiltzaileak baimentzeko sistema, filmarekin lotutako edukiak kutxatila birtualaren barruan argitaratzeko. Argazkiak, bideoak, audioak eta dokumentuak.
   - Estatistikak eta neurketak ateratzea.
   - Zerrendak eta txostenak sortzea.

   Zinemaldian parte hartzeko film bat hautatu ondoren, atal honetatik betetzen dira argitalpen digitaletarako eta paperezko argitalpenetarako eduki guztiak. Horretarako, informazio horren edukiak itzultzeko eremuak izango dira datu-basean.

7. **Hotelak.** Zinemaldiko gonbidatuentzako hotel-plazak erreserbatzeko sistema, gastu-estimazioekin. 1000 erreserba inguru (5000 gau).
   - Zinemaldirako eskuragarri dauden kupoak.
   - Esleipena, akreditatuka.
   - Akreditatuei eta hotelei jakinaraztea.
   - Okupazioari eta erreserben kudeaketari buruzko datuak bistaratzeko eta estatistikarako tresnak.
   - Zerrendak eta txostenak sortzea.

8. **Lekualdaketak.** Zinemaldiko gonbidatuen lekualdaketetarako autoak eta gidaria esleitzeko sistema. 2600 lekualdatze inguru edizio bakoitzeko.
   - Autoen eta gidarien plangintza.
   - Jasotze- eta uzte-puntuei buruzko komunikazioa akreditatuekin.
   - Tresta estatistikoak eta zerbitzuak esleitzeko, kudeatzeko eta egiteko datuak bistaratzekoak.
   - Zerrendak eta txostenak sortzea.

9. **Elkarrizketak.** Espazioak eta denborak esleitzeko, dagokion inprimakian (prentsa-menuko 1.5.5 puntua) jasotako elkarrizketa-eskaerak kudeatzeko sistema.
   - Hitzorduen plangintza.
   - Akreditatuei hitzorduaren egoera, lekua eta emandako denbora jakinaraztea.

10. **Orrialde orokorrak.** Une honetan 1200 orrialde inguru daude. Webgunearen alde publikoko orrialdeetako informazio-edukiontziak, atalka eta azpiatalka antolatuta. Azken orrialdeak eta orrialdeen aurkibideak atalka eta azpiatalka aurki daitezke. Honako hauek biltzen dituzte:
   - Testuak.
   - Irudiak.
   - Bideoak.
   - Erlazionatutako dokumentuak.
   - Argazki-galeriak.
   - Bideo-galeriak.
   - Argazki-artxiboarekiko loturak.
   - Filmen fitxekin loturak.
   - Beste orrialde eta atalekin loturak.

11. **Programazioa.** Proiekzioen zerrenda, 650 inguru urteko. Honako hauek esleitzea:
   - Filma
   - Eguna
   - Ordua
   - Aretoa
   - Saila
   - Iraupena
   - Hizkuntza eta azpitituluak
   - Sarrera-salmentaren egoera
   - Aurkezpenera edo solasaldira bertaratutakoak
   - Pase-zenbakia
   - Pase berean beste film batzuekin duen harremana, hala nola film labur bat edo batzuk batera proiektatzea.
   - Informazio gehigarriak: prentsa-pasea, pase mugatua, bozketa duen pasea, etab.
   - Sarrerak saltzeko sistemaren hornitzailearen APIarekin integratzea, salmentari eta sarbideei buruzko informazioa lortzeko, publiko orokorrari zein akreditatuei dagokienez.
   - Programazio-parrilla banaketa-zerrendetara bidaltzeko sistema, aldaketei buruzko informazio zehatzarekin.

- Newsletterrak sortzeko sistema, promozioak dituzten proiekzioetarako sarbideak eskaintzeko. Newsletter hau erabiltzaileak alde publikotik harpidetu ditzakeen banaketa-zerrendetako bat da.

12. **Plangintza.** Saioen eta ekitaldien banaketa egutegi batean ikusteko aukera ematen duen aplikazio bisuala, saioei esleitzen zaizkien sailen, aretoen, sarbide moten edo bestelako ezaugarrien arabera iragaztea ahalbidetuz, hala nola aretoak bete eta husteko denborak edo filmen, aurkezpenen edo solasaldien iraupena, eta gatazkak edo gainjartzeak identifikatzea.

13. **Buletinak eta deialdiak.** Newsletterrak eta alde publikoko eta eduki kudeatzaile honetako 3. puntuko (mailinga) harpidetza-inprimakiekin konektatutako deialdiak sortzeko tresna.
    - Testuak, irudiak eta estekak lantzea eta maketatzea.
    - Deialdiak egitea erantzun-botoiekin, bertaratzea baieztatzeko.
    - Deialdien berrespenen kudeatzailea.
    - Zerrendak eta txostenak sortzea.

14. **Logotipoa.** Sail, sari eta edizioen araberako logotipoaren bertsioen gordailua, izen bereko edukia zati publikoan kudeatzen duena (menu nagusiaren 1.2.6).

15. **Gazteriaren Epaimahaia.** Gazteriaren Epaimahaian parte hartzeko eskabideak jaso eta kudeatzeko sistema.
    - Jasotako informazioaren analisia eta kudeaketa.
    - Onarpenari, ezespenari edo parte hartzeko beharrezkoak diren beste prozesu batzuei buruzko mezu pertsonalizatuak bidaltzeko sistema.

16. **Argitalpenen denda.** Produktuen kudeaketa (altak, izakinen kontrola), bezeroak, eskaerak, bidalketa-metodoak, ordaintzeko moduak, zergak, fakturazioa, etab. Bidalketa-kostuen kalkulua, pisuaren, helmugaren eta mezularitza-motaren arabera. Merkataritza elektronikoaren atal honi lotutako mezuak automatizatzea.

17. **Sariak.** Edizio guztietan Zinemaldiak emandako sari eta kategoria guztien zerrenda. Haien arteko harremana, filmekin sailekin eta pertsonekin.

18. **Zinemaldiaren Egunkaria.** Zinemaldiaren egunkarien gordailua bere historia osoan, pdf eta html bertsioetan. Zinemaldiko egunetan, aldizkariaren erredakzioak zenbaki bakoitzaren itxieran emandako pdf bertsiotik abiatuta argitaratu beharko dira eduki horiek.
    - Aurkibide-orriak edizioen arabera.
    - Artikuluen aurkibide-orriak zenbakiaren arabera.
    - Artikulu bakoitzaren amaierako orrialdeak, eremu espezifikoekin: izenburua, egilea, data, egunkari zenbakia, orrialde-zenbakia inprimatutako bertsioan, irudiak, testua eta hizkuntza.

19. **Irudiak.** Argazki-fitxategiak, hizkuntzen araberako deskribapenak eta metadatuak dituztenak, hala nola argazkilaria, data, copyright eta deskarga-baimenak, webguneko orrialdeetan integratzeko (20.000 inguru).
    - Galeriei irudiak esleitzea.
    - Orrialde, film edo sailei galeriak esleitzea.
    - Talde edo sailei galeriak esleitzea.

20. **Argazki-artxiboa.** Zinemaldiak argazki artxibo zabala du (700.000 baino gehiago), bere argazkilariek historian zehar egindako irudiekin. Edizio bakoitzean 50.000 eta 70.000 irudi artean sartzen dira atal honetan. Atal honek edizio bakoitzean sortzen diren irudiak dokumentatuta uzteko gaitasuna izan beharko du.
    - Irudi bakoitzaren metadatuak kontsultatu eta editatzea. Data, egilea, deskribapena, etiketak, erlazionatutako filmak, copyright, webgunearen beste atal batzuen erabilera eta deskargatzeko estekak.
    - Fototekarako artxiboko argazki-galeriak sortzea eta kudeatzea (parte publikoa).
    - Galeriei argazkiak esleitzea.

- Argazki bakoitzerako argazki-oin espezifikoak galeria bakoitzean.
- Irudiak webgunearen beste atal batzuekin lotzea, hala nola filmekin edo eguneko agendarekin.

21. **Bideoak eta streaminga.** Bideo-fitxategien edo esteken zerrenda *youtube* eta *vimeo* moduko kanpoko plataformetan, hizkuntzen araberako deskribapenekin, eta hainbat metadaturekin, hala nola parte-hartzaileak, data, copyright, audioaren hizkuntza, azpitituluak eta deskarga-baimenak, webguneko orrialdeetan integratzeko. Gaur egun 6000 erreferentzia inguru daude.
    - Orrialde eta atalei bideoak esleitzea.
    - Filmei eta sailei bideoak esleitzea.
    - Kanalei bideoak esleitzea.
    - Erlazionatutako bideoen kanal edukiontziak sortzea.
    - Bideoak webguneko beste atal batzuekin lotzea, hala nola filmekin eta eguneko agendarekin.
    - Zuzeneko bideoei alta emateko eta horiek streaming bidez argitaratzeko eta emititzeko tresna.

    Egunero 3-5 prentsaurreko egiten dira, 25 minutu inguru irauten dutenak. Zinemaldiko zeremonia kopurua, inaugurazioaz eta klausuraz gain, banatuko diren Donostia sarien araberakoa izango da. Zeremonia hauek 20 eta 55 minutu arteko iraupena dute. Iraupen desberdineko beste ekitaldi batzuk ere sartu dira parrillan azken urteotan (masterclasseak, mahai-inguruak, Zinemaldia & Technology jardunaldia, etab.). Prentsaurrekoen audio-fitxategi espezifikoa ere (hizkuntza desberdinetan) eskuragarri egongo da deskargatzeko. Emanaldiak egingo dituen streaming zerbitzaria Zinemaldiak jarriko du.

22. **Jarduerak.** Zinemaldian beste erakunde batzuekin lankidetzan garatzen diren jardueren zerrenda.
    - Jardueraren fitxa zehatza, honakoekin: deskribapena, kontaktuak, data, lekua, oharrak.
    - Web argitalpenaren fitxa, hiru hizkuntzetako testuekin.
    - Argitalpenerako erlazionatutako irudiak.

23. **Akordioak.** Enpresa, erakunde eta babesle jakin batzuekin kontraprestazioak kudeatzeko gunea, webgunean duten presentziari, publizitateari, akreditazioei edo sarrerei dagokienez.
    - Babesle-orriaren kudeatzailea, edizio bakoitzeko fitxa espezifikoekin, eta haren agerpena, eta azalean edo informazio hau jasotzen duten beste orrialdeetan duen ordena eta tamainarekin.
    - Babesle edo erakunde bakoitzak 11. ataleko (Programazioa) saio bakoitzean eskura ditzakeen sarreren zerrenda.
    - Saio bakoitzeko sarrerak berresteko eta entregatzeko sistema.
    - Akordioak dituzten enpresen eta haien akreditatuen, lekualdaketen, hotelen eta sarbideen zerrenda.

24. **Bozketak.** Sailetako bozketak biltzen dituen aplikazioa kudeatzeko tresna.
    - Programazioa ataleko saioei bozketa-mota esleitzea.
    - Bozketen aplikazioan saioka aurkezten den informazioa pertsonalizatzea.
    - Bozketak jasotzea, batez bestekoak kalkulatuta, eta txostenak egitea.

25. **Eguneko jardueren agenda.** Zinemaldian egiten diren jardueren zerrenda, informazio zehatzarekin eta gainerako atalekin lotuta. Hemendik kontrolatzen da marketetan eskuragarri dagoen eta akreditatuentzako sarbide mugatua duen “Agenda” aplikazioaren edukia.
    - Jardueren araberako ezaugarriak esleitzea.
    - Jarduera-moten araberako zerrendak, pdf dokumentuak sortzea eta banaketa-zerrendetara bidaltzea.
    - Sarbide- edo akreditatu-motaren araberako zerrenda, pdf dokumentua sortzea eta banaketa zerrendetara bidaltzea.

- Jarduerak argazkilariei edo beste erabiltzaile-profil batzuei esleitzea, beren jarduera garatzeko.

26. App ofiziala. Marketetan eskuragarri dagoen Zinemaldiaren aplikazio ofizialaren itxura eta ageriko atalak kudeatzea.
- Azaleko moduluak eta modulu nabarmenak editatzea.
- Espazioak, bideoak, irudiak, kontaktua edo sustapen-atalak bezalako edukiak editatzea.
- Atalak aktibatzea, daten eta erakutsi beharreko edukiaren arabera. (filmen zerrenda, programazioa, agenda, etab.).

27. Artxibo historikoa. Atal historikoaren alderdi bisuala kudeatzeko atala, edizio guztietako eduki gurutzatuak erakusten dituena.
- Sailak eta filmak edizioaren arabera
- Sariak edizioaren arabera
- Epaimahaiak edizioaren arabera
- Irudiak edizioaren arabera
- Bideoak edizioaren arabera
- Dokumentuak edizioaren arabera

3.- LANAREN EXEKUZIOA, METODOLOGIA ETA DINAMIKA

Kontratu hau esleitu ondoren abian jartzeko, azterlan- eta azterketa-fase bateratu bat ezarriko da Sozietateko taldearen eta garatzailearen taldearen artean, premien plangintza zehatza egiteko eta kontratuaren xedea behar bezala garatzeko kontuan hartu beharreko alderdi guztiak argitzeko.

Enpresa esleipendunak plegu honetan aurreikusitakoaren arabera garatuko ditu lanak, eta kontratua gauzatzeko arduradun bat izendatuko du, zuzendaritza- eta koordinazio-eginkizunekin. Arduradun horrek Zinemaldiko proiektuko arduradunak ezarritako jarraibideak jarraitu beharko ditu, eta baliabide teknikoak eta giza baliabideak ahalik eta ondoen esleitu beharko ditu, kontratuaren xedea behar bezala betetzeko.

Garatzaileak Zinemaldiaren lankidetza aktiboarekin gauzatuko du proiektua, eta beharrezko informazioa eta dokumentazio guztia emango diote elkarri.

Urteko kudeaketa-plana. Enpresak lanaren urteko plangintza egingo du, Zinemaldiko kontratuaren arduradunak emandako plangintza estrategikoa eta urtekoa eta lehentasunezkotzat jotako proiektuak kontuan hartuta. Proiektuaren faseak ezarriko dira, urte naturalak eta etapa esanguratsuenak bereiziz (Zinemaldi aurrekoa, Zinemaldian zehar eta Zinemaldiaren ondoren), eta aurrez definitzeko moduko ibilbide kritikoak ezarriko dira.

Zinemaldiko proiektuaren arduradunak kontratuaren bilakaeraren etengabeko jarraipena egingo du, ezartzen diren talde-bilera eta lan-dinamiken bidez.

Zinemaldiko proiektuaren arduraduna egindako lanak gainbegiratu, kontrolatu eta onartuko ditu, eta egoki iritzitako aldaketak proposatuko ditu; hala badagokio, kontratua deuseztatu ahal izango da, behar bezala arrazoitutako arrazoirik badago.

4.- LANTALDEA

Kontratuaren xede diren zerbitzuak behar bezala emango direla bermatuko duen lantalde bat proposatu beharko du lizitatzaileak, honako profil hauetan banakatuta:

URTEKO dedikazioa
- Proiektuko zuzendaria

- Web garapenen programatzailea
- Gailu mugikorretarako aplikazioen programatzailea
- Diseinatzailea eta maketatzaile grafikoa

Kontratuaren xedea betetzeko urtean zehar aurreikusitako dedikazio-orduak:

- Proiektuaren koordinazioa: - 450 ordu
- Analisia eta programazioa: - 3200 ordu
- Diseinua eta maketazio grafikoa: - 1300 ordu

Urtean zehar profil horien lana garatzeko baliabide fisikoak eta teknikoak aurkeztu beharko ditu lizitatzaileak.

Talde horri IRAILEAN gehituko zaizkio, gutxienez:

- 3 bideo-teknikari (zuzenekoen streaminga kontrolatzeko, bideoak igotzeko, argitaratzeko eta etiketatzeko) – 288 ordu (8 ordu x 12 egun x 3 pertsona)
- 2 eduki-editore (testuak eta argazki-galeriak argitaratzeko) – 192 ordu (8 ordu x 12 egun x 2 pertsona)
- 2 argazki-editore deskarga, indexazio, hautaketa eta ukituak egiteko (batez beste 4000 argazki sortzen dira egunero) – 192 ordu (8 ordu x 12 egun x 2 pertsona)

Talde osoaren jarduerak, Zinemaldiari dagokion hamabostaldian, presentziala izan beharko du, prestasuna eta dedikazioa erabatekoak baitira. Aldi horretan:

- Ordutegia etenik gabekoa da, goizeko 8:00etatik lanaldiari dagokion lana eta haren gorabeherak amaitu arte, gutxi gorabehera 24:00ak arte.
- Garatzaileak giza taldea jarriko du inplikatutako lan-arloak eta ordutegia aurrez aurre betetzeko.
- Zinemaldiak beharrezko lan-espazioak jarriko ditu, bai eta irailean behin-behineko langile horiek egin beharreko lanak garatzeko behar diren baliabide teknikoak ere.